



TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2020KO URTARRILA

Urtarrila oso lehorra izan zen. Tenperaturari dagokionez, kostaldean beroa eta Araba erdialdean ohikoa izan zen. EAEko ipar-mendebaldeko zenbait lekutan mende honetako urtarril lehorrenetarikoa izan zen, baita Gipuzkoa barnealdeko zenbait lekutan ere. Hilaren lehenengo hamabostaldian izandako eguraldi egonkorrari esker, barnealdeko bailaretan eta kubetetan lanbroa eta lainoa sortu ziren eta leku haietan, kostaldeko eskualdeekin alderatuz, giroa hotzagoa izan zen. Muturreko egoerei dagokionez, urtarrila nahiko lasaia izan zen; abisu gehienak izotzagatik igorri ziren, 17 hain zuzen ere. Elurra kota altuetan baino ez zuen egin eta noizbehinkakoa izan zen, hilaren 21ean Araba hegoaldean izan ezik. Amaitzeko, aipagarria da hilaren 9an izandako enbata frontala.

Prezipitazioa

Urtarrila oso lehorra izan zen EAE osoan, Arabako Errioxan izan ezik. Prezipitazio-eremuak, beraz, ohiko banaketa espazialek aldendu ziren, oso euri gutxi egin zuelako. Pilatutako prezipitazioaren maximoak 60 mm inguruak izan ziren Gipuzkoa ipar-ekialdean eta ekialdeko beste zenbait lekutan (Eskas 88.3 mm, Ameraun 69.5 mm, Kapildui 58.3 mm, Behobia 57.6 mm, Ilarduia 52.2 mm, Iruzubieta 51.6 mm). Prezipitazio gutxien EAEaren mendebaldean pilatu zen, Bilbo Handia barne (Deusto 18.7 mm, Cerroja 20.3 mm, Gardea 22.7 mm, Areta 23.1 mm) eta Ebro ondoko eskualdean (Moreda 22.6 mm).

Mediterraneo isurialdean ohiko prezipitazio kantitatearen % 50 pilatu zen, kantauri isurialdean %30, eta Enkarerrietan eta Bilbo Handian %20 baino gutxiago.

Izan ere, zenbait estaziotan mende honetako urtarril lehorrena izan zen, adibidez: Bizkaiko kostaldean, Enkarerrietan, Ararialdean eta Arratia-Nerbioi eskualdeetan. Horrez gain, baita Gipuzkoa barnealdeko zenbait tokitan ere. Estazio gehienetan, ordea, 2011koa eta, neurri txikiagoan, 2000koa eta 2002koa lehorragoak izan ziren.

Kalifikazio horrekin bat, euri-egunen kopurua ere ohikoa dena baino txikiagoa izan zen. Kantauri isurialdean batezbesteko klimatologikoa 13 euri-egunekoa da eta urtarrilean 7 euri-egun baino ez ziren izan. Arabako Lautadako batezbestekoa 10ekoa da eta 7 euri-egun baino ez ziren izan. Arabako Errioxan, berriz, ohikoa izan zen hilabetea, batezbestekoa 6 euri-egunekoa delako eta 5 izan ziren.

Euri-egunak hilabetean zehar sakabanatu ziren. Euria ez zen ugaria izan (≥ 30 mm). Hilaren 18a izan zen egunik euritsuena eta pilatutakoa 10-20 mm artekoa izan zen, batez ere Mediterraneo isurialdean (Salvatierra 22.7 mm, Alegría 22.4 mm, Iturrieta 20.7 mm, Abetxuko 18 mm, Zegama 17.2 mm).



Elurrari dagokionez, ez zen aparteko gertaerarik izan. Hilaren 21ean, goizeko 08etatik arratsaldeko 16etara, Araba hegoaldean elur-zaparradak bota zituen noizbehinka, elur-kota 600 m-ra zegoela, batez ere Kantabria mendilerroaren bi isurialdeetan.

Taula 1: Azken urteetan urtarrilean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011
Deusto	18.7	144.5	212.4	168.0	95.3	203.8	158.8	292.1	62.4	25.4
Lasarte	54.0	230.6	280.8	230.6	132.3	212	297.5	443.4	163.2	40.4
Arrasate	42.5	294.0	281.7	282.8	128.0	289.6	229.1	442.7	114.4	31.6
Abetxuko	33.8	130.2	129.9	96.9	72.5	134.3	95.5	226.7	24.6	16.5
Párganos	28.7	64.4	58.0	68.3	60.4	57.2	47.1	133.7	13.9	31.2

Temperatura

Temperaturari dagokionez, urtarrila kostaldean beroa izan zen eta Araba erdialdean ohikoa. Kostaldean batez besteko temperatura 9.5-10.5 °C ingurukoa izan zen, ohikoa dena baino 1 °C altuagoa; Arabako Lautadan, 4 °C-tik gorakoa izan zen, batezbestekotik gertu. Mende honetako datuekin alderatuz, erdiko postuetan dago aurtengoa, 1996ko batezbesteko errekorretik urrun.

Egun hotzak eta beroak tartekatuz joan ziren hilabeteen zehar; lehenengo hamabostaldian barnealdean egun hotzak gailendu zitzaizkien beroei.

Kostaldekoko batez besteko temperaturaren eta Araba erdialdekoko batez besteko temperaturaren artean egon zen alde nabarmena, urtarrileko lehenengo 13 egunetan sarri izandako inbertsio termikoagatik izan zen. Egun haietan gauetako irradiazioaren eraginez, zenbait lekutan izotza egin zuen eta beste hainbat tokitan lanbroa eta lainoa sortu ziren. Ebro ibarrean lainoa iraunkorra izan zen egun askotan. Urteko sasoi honetan laino iraunkorra sortzea erabat ohikoa da, antizikloi hotzen eraginpean eguratsa egonkor egoten baita. Arabako hiriburuan batezbesteko klimatologikoa 5.4 egunekoa da eta Arabako Errioxan 7.2koa. Urtarrilean laino iraunkorren egun kopurua ohiko balioaren bikoitza izan zen.

Bigarren hamabostaldian ere izotza bota zuen, baina arrazoia beste bat izan zen; ipar-ekialdekoko aire hotzaren adbezkioa, hain zuzen.

Ez da harrigarria, beraz, izotz-egunen kopurua handia izatea. Gainera, 14 izotz-egunetan izotz handia bota zuen (≤ -2 °C).

Egoera horren adierazle da batez besteko temperatura. Arabako Errioxako batez besteko temperatura Gasteizkoa baino baxuagoa izan zen, ibai ertzean izan ezik, eta normalean egoera alderantzizkoa izaten da.

Lehenengo hamabostaldiari dagokionez, hilaren 1ean Araba erdialdean izandako temperatura minimoak izan ziren aipagarrienak (Antoñana -6.2 °C,



Kanpezu -6.1 °C, Tobillas -5.5 °C, Ozaeta -4.1 °C). Kantauri isurialdeko zenbait lekutan ere 0 °C-z azpikoak izan ziren minimoak. Hurrengo egunetan izotz handiagoa bota zuen, baita kostaldetik gertu dauden tokietan ere (Urkiola -3.1 °C, Balmaseda -2.6 °C, Arrasate -2.4 °C, Aitzu -1.7 °C, Muxika -1.6 °C, Sangroniz -0.2 °C).

Hala ere, egunik hotzenak bigarren hamabostaldian izan ziren, hilaren 20an eta 21ean hain zuzen ere. Egun haietan EAE osoan batez besteko temperatura 0-6 °C artekoa izan zen. Temperaturarik baxuenak mendi inguruetan neurtu ziren (Hilaren 20an: Kapildui -5.6 °C, Herrera -4.8 °C, Iturrieta -4.2 °C, Oiz -3.6 °C). Ekialdeko kostaldean ere izotza egin zuen egun haietan (hilaren 21ean: Jaizkibel -2.6 °C, Behobia -0.9 °C, Lasarte -0.9 °C).

Egunik beroena hilaren 31a izan zen; hegoaldeko fluxua nagusitu zen. Kantauri isurialdeko ia leku guztietan 20 °C-tik gorako temperatura maximoak izan ziren, kostaldeko zenbaitetan 22 °C ingurukoak (Berriatua 23.1 °C, Arteaga 22.5 °C, Mungia 22.3 °C, Miramon 22.2 °C, Higer 19 °C), baita kantauriko bailaretako leku batzuetan ere (Eitzaga 22.5 °C, Berna 22.2 °C, Alegia 22.1 °C).

Taula 2: Urtarrilean, azken urteetan, neurtutako batez besteko temperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011
Deusto	10.5	7.6	9.9	8.4	12.5	9.2	12.1	10.4	10.0	10.2
Lasarte	9.5	6.5	9.1	5.9	10.9	7.9	10.9	8.8	8.6	8.4
Arrasate	6.9	4.6	6.9	4.0	8.4	5.4	8.6	6.5	6.3	6.5
Abetxuko	4.7	3.6	5.4	2.5	6.8	3.7	7.2	5.4	5.1	5.0
Párganos	4.1	3.9	6.0	4.1	7.0	4.4	6.5	6.2	5.7	5.1

Haizea

Hilaren 13ra arte fluxu lokalak izan ziren nagusi, zubi antiziklonikoei eta aintzira barometrikoei esker. Hilaren 9a izan zen salbuespena: egun hartan uhin labur batek Kantauri itsasoa zeharkatu zuen, mendebaldetik ekialdera, eta enbata frontala gertatu zen. Kostaldean haize-bolada oso gogorak neurtu ziren (Punta Galea 100.1 km/h, Matxitxako 109.1 km/h, Almike 81.7 km/h, Arteaga 74.9 km/h, Zarautz 92.2 km/h, Santa Clara 98.6 km/h, Miramon 84.2 km/h, Jaizkibel 106.6 km/h, Higer 86 km/h).

Hilaren 13ko gauean hasi eta 18ra bitartean hego/hego-mendebaldeko haizea izan zen nagusi, jet korrontea latitude baxuetan kokatu baitzen. Haize zakarra izan genuen eta haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten egunero, hilaren 17an izan ezik, egun horretako bolada maximoa 99 km/h-koa izan zen. Hilaren 15ean Bizkaiko haizeguneetan haize-bolada bortitzak izan ziren (Cerroja 135.7 km/h, Punta Galea 130.3 km/h, Matxitxako 130.3 km/h, Orduña 126.4 km/h), eta gainerako tokietan haize-boladek 80 km/h-ko abiadura gainditu zuten (Deusto 86.8 km/h, Galindo 86.4 km/h, Iurreta 82.1 km/h).



Hilaren 19tik hilaren amaierara arte haizea aldatuz joan zen, lehenengo koadranteke fluxu kontinentaletik hirugarren koadranteke fluxu iberikora. Erdialdeko egunetan ekialdeko haizea izan zen nagusi, ez-ohikoa den antizikloi britainiar indartsu baten pean. Haize-boladek ez zuten 100 km/h-ko abiadura gainditu, hilaren 27an izan ezik (Orduña 115.9 km/h, Cerroja 111.6 km/h, Punta Galea 104 km/h).

Analisia

Urtarrilaren 1etik 13ra

Eguraldi egonkorrekin eman genion hasiera urteari. 500 hPa-eko mailan blokeo antizikloniko indartsuarekin jarraitu genuen; gailur antiziklonikoa Atlantikoaren mendebaldean, Iberiar penintsulan eta Afrika iparraldean zabaldua zegoen. Gailur horren lurrazaleko isla antizikloi bat izan zen, hilaren 1ean eta 2an Penintsulan kokatu zena, 1034 hPa-ekoa. Hilaren ia lehenengo hamabostaldi osoa eman genuen horrela, hilaren 4an eta 10ean izandako aldaketa txikiekin; egun horietan fronte hotzak presio altuen eremuan sartu eta iparraldean euria egin zuen. Hilaren 10ean pasa zen frontea aktiboagoa izan zen eta euria ugariago egin zuen. Gainerako egunetan zerua hodei gutxirekin egon zen; lainoguneak sortu ziren, Arabako zenbait lekutan iraunkorrak, batez ere Ebro ibarrean. Hor giroa hotz-hotz mantendu zen, inbertsio termiko handien kasuan ohikoa den bezala. 850 hPa-eko mailan, hilaren 6an eta 7an airearen temperatura 10 °C ingurukoa izatera ailegatu zen eta 5 °C-tik gora mantendu zen orokorrean.

Urtarrilaren 14tik 17ra

Jet korronea latitude baxuagotan kokatu zen eta depresio batzuk Iberiar penintsulara hurbildu ziren, Britainiar uharteetan zeuden presio altuak saihestuz. Penintsularen iparraldean hirugarren koadranteke haize bizia izan zen nagusi eta tenperaturak gora egin zuen, batez ere ipar partean.

Urtarrilaren 18tik 25era

Hilaren 17an egoera sinoptikoa aldatu egin zen. Jet korronearen zirkulazioaren barne zegoen aska atlantiko txiki bat sakonduz joan zen, bere atzetik gailur atlantiko indartsu bat bizkor mugitzen zihoan heinean. Beraz, Blokeo antiziklonikoa hautsi egin zen eta euritara jo zuen, fronte batek Penintsula mendebaldetik ekialdera zeharkatu zuenean. Aska horrek depresiogune ahul bat ekarri zuen eta hilaren 18an Kantauri itsasoan kokatu zen. Hurrengo egunean gailurra Britainiar uharteetara zabaldu zen. Gailurraren ardatza ia meridionala zen eta Penintsularen hego-ekialdean aska depresio isolatua bilakatu zen. Lurrazalean depresioa Penintsularen ekialdean kokatu zen, 1012 hPa-eko presioarekin. Depresioa gehiegi sakondu ez arren, "Gloria" izena jarri zioten. Gloria depresioaren eta Britainiar uharteetako antizikloi indartsuaren (1050 hPa-ekoa) artean ekialdeko zirkulazio indartsua ezarri zen. Ekialdeko fluxuaren ibilbidea Mediterraneo itsasoan luzea izan zen Iberiar penintsularen ekialdera iritsi baino lehen eta, gainera, Iberiar penintsularen ekialdean beste fluxu hotz eta lehor batekin egin zuen bat. Konbergentzia lerro hark



Mediterraneoan izugarritzko denboralea eragin zuen: elurte eta eurite handiak izan ziren.

Hilaren 20an Europa iparraldean jet korronea berrezarri zen eta goi-geruzan isolaturiko depresioa mendebaldera mugitu zen, zirkulazio zonalaren kontrako norantzan. Gibraltareko itsasartean kokatu zen depresio isolatua eta denboraleak jarraipena izan zuen. Hilaren 21ean depresioaren aurreko aldea Penintsularen ipar-ekialdean kokatu zen, bai goi-geruzan, bai lurrazalean. Orduan depresioak eragina izan zuen EAEn eta Araba hegoaldean elurra egin zuen kota ertainetan. Barnealdeko zenbait lekutan izotz handia bota zuen. Hurrengo egunetan goi-geruzan isolaturiko depresioak ahultzera egin zuen eta ezegonkortasuna Penintsulako hainbat zonaldeetara zabaldu zen, esate baterako Liongo Golkora eta Cadizeko Golkora. Gertaeraren amaieran hego-haizea ibili zen gurean.

Urtarrilaren 26tik 31ra

Hilaren amaieran zirkulazio zonala berrezarri zen, ardatz bertikalean jet korronea 50 °I paralelo inguruan zebilela. Islandia hegoaldean kokatu zen presio baxuen sistema zabal bati loturiko fronte batzuk iritsi ziren EAera eta euri-egun batzuk izan genituen. Egoera sinoptikoari dagokionez, mendebaldeko adbezioa nagusitu zen batzuetan eta beste batzuetan egoera antiziklonikoa; bitartean Penintsularen hegoaldean gailurra zabaldu zen. Hego-mendebaldeko haizea nagusitu zen, hilaren 27an eta 30ean bereziki zakar ibili zen eta giro epela izan genuen.






Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2020ko urtarrileko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz-egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri-egunak.
Deusto	10.5	14.3	20.9	7.4	18.7	0	18.7	5.0	5
Lasarte	9.5	14.1	21.7	5.6	-0.9	2	54.0	12.6	10
Arrasate	6.9	12.0	20.0	3.3	-2.4	7	42.5	15.8	7
Abetxuko	4.7	9.5	16.7	0.8	-4.6	13	33.8	18.0	7
Páganos	4.1	8.0	16.0	0.8	-3.7	14	28.7	8.8	5



Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak



Pilatutako prezipitazioa


 Temperatura minimoa

 Batez besteko temperatura


 Temperatura maximoa

Prezipitazioaren jokaera


Behatutako prezipitazioa
Precipitación observada




Prezipitazio normala
Precipitación normala



Prezipitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normal



Prezipitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal





Muturreko balioak

Hileko prezipitazio baxuena

Izena	Aurreko errekorra (mm) XXI. mendeko urtarrila	Urtea	Aurtengo errekorra (mm) 2020ko urtarrila
Almike	52.8	2011	39.8
Areta	30.4	2011	23.1
Cerroja	28	2011	20.3
Deusto	25.4	2011	18.7
Gardea	23.6	2011	22.7
Matxinbenta	42.9	2011	38.9
Matxitxako	55	2011	36.2
Oleta	37.1	2002	37.1
Orozko	31	2011	27.6
Punta Galea	26	2000	12.6
Zizurkil	33.6	2011	29



Muturreko egoerak

Urtarrilean 39 abisu hori igorri ziren: 3 elurragatik, 4 haizeagatik haizeguneetan, 1 haizeagatik haizeguneak ez diren lekuetan, 17 izotzagatik, 5 olatuen altueragatik nabigaziorako, 1 enbatagatik eta 8 kostaldean inpaktuagatik.

- Hilaren lehenengo hamabostaldian eguraldi egonkorra izan zen nagusi, 500 hPa-eko mailan ezarri zen blokeo antizikloniko bati esker. Lurrazalean ere antizikloi indartsu bat kokatu zen. Zerua garbi egon zen ia egun guztietan eta barnealdean izotza bota zuen gauean, batez ere Araban. Laino iraunkorra ere agertu zen zenbait egunetan, batez ere Ebro ondoko eskualdean.

Asteazkena, hilak 1: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 1: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.

Igandea, hilak 5: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 6: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.

Astearte, hilak 7: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 11: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.

Igandea, hilak 12: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 13: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.

Astearte, hilak 14: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Ebro ondoko eskualdean 00etatik 10etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 16: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Ebro ondoko eskualdean 00etatik 10etara ordu lokala.

Estazioa	Hilak 1	Estazioa	Hilak 2	Estazioa	Hilak 3	Estazioa	Hilak 5
Antoñana	-6.2	Pagoeta	-6.2	Trebiño	-3.9	Salvatierra	-3.4
Kanpezu	-6.1	Tobillas	-5.7	Albaina	-3.7	Ozaeta	-3.2
Pagoeta	-6	Albaina	-5.5	Salvatierra	-3.5	Iturrieta	-3.1
Navarrete	-5.7	Navarrete	-5.4	E Tobillas	-3.5	Pagoeta	-3.1
Tobillas	-5.5	Trebiño	-5.3	Ozaeta	-3.4	Albaina	-2.9
Iturrieta	-5.3	Sarria	-5.2	Navarrete	-3.3	Etura	-2.7
Albaina	-4.5	Berastegi	-4.8	Pagoeta	-3.3	Kanpezu	-2.6



Estazioa	Hilak 6	Estazioa	Hilak 7	Estazioa	Hilak 8	Estazioa	Hilak 11
Salvatierra	-5.9	Pagoeta	-5	Pagoeta	-1.8	Iturrieta	-4.3
Albaina	-5.8	Iturrieta	-4	Salvatierra	-0.9	Albaina	-3.3
Kanpezu	-5.8	Navarrete	-3.9	Ozaeta	-0.8	Ozaeta	-3.1
Etura	-5.4	E Albaina	-3.6	Albaina	-0.6	Pagoeta	-3
Ozaeta	-5.4	Ozaeta	-3.3	Arkauti	-0.6	Sarria	-3
Trebiño	-5.4	Subijana	-3.3	Espejo	-0.6	Altube	-2.9
Navarrete	-5.2	Salvatierra	-2.9	Etura	-0.6	Salvatierra	-2.9

Estazioa	Hilak 12	Estazioa	Hilak 13	Estazioa	Hilak 14	Estazioa	Hilak 16
Pagoeta	-6.1	Iturrieta	-4.2	Moreda	-2.6	Kanpezu	-2.1
Albaina	-5.9	Trebiño	-4.2	Paganos	-2	Antoñana	-2
Trebiño	-5.8	Albaina	-4.1	Kanpezu	-1.9	Navarrete	-1.4
Iturrieta	-5.3	Pagoeta	-4.1	Antoñana	-1.8	Paganos	-0.1
Espejo	-5.1	Salvatierra	-4	Navarrete	-1.5	Trebiño	-0.1
Salvatierra	-5	Kanpezu	-3.9	Albaina	-0.9		
Altube	-4.8	Etura	-3.8	Iturrieta	-0.8		

- Hilaren 9an, arratsaldean, fronte hotz batek lurraldea zeharkatu zuen eta enbata frontala izan zen. Olatuen altuerak ere gora egin zuen, hilaren 10era arte. Hilaren 9an lehenengo itsasgoraren inguruan gainezka egiteko indizeak $I=6$ m eta $I_{max}=6.4$ m izan ziren, hilaren 10eko lehenengo itsasgoraren inguruan, berriz, $I=6.1$ m eta $I_{max}=6.7$ m. Hilaren 10ean, 12etan, Pasaiaiko Portuan olatuen altuera adierazgarria 5.5 m-koa izan zen.

Osteguna, hilak 9: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 03etatik 04etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskua: enbatagatik 16etatik 18etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 21etatik 24etara.

Ostirala, hilak 10: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 18etara. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 03etatik 05etara ordu lokala.

Estazioa	Haize-bolada maximoa (km/h) (enbata)
Matxixako	109
Jaizkibel	106.6
Punta Galea	100.2
Santa Clara	98.8
Higer	86.1
Miramón	84.3
Galindo	82.5
Deusto	74.8



- Hilaren 12tik 15era bitartean hilabeteko itsasgorarik handienak izan ziren eta horien inguruan gainezka egiteko indizeak muturrekoak izan ziren. Hilaren 12an, estimatutako gainezka egiteko indizeak $I=5.8$ m eta $I_{max}=6.3$ m izan ziren lehenengo itsasgoran, $I=5.8$ m eta $I_{max}=6.3$ m bigarrenean. Hilaren 13an, $I=6$ m eta $I_{max}=6.4$ m lehenengoan eta $I=5.8$ m eta $I_{max}=6.2$ m bigarrenean. Hilaren 14an, $I=6.3$ m eta $I_{max}=6.8$ m lehenengoan, $I=6.3$ m eta $I_{max}=6.8$ m bigarrenean. Hilaren 15ean lehenengo itsasgoraren inguruan estimatutako gainezka egiteko indizeak $I=6.3$ m eta $I_{max}=6.8$ m izan ziren.

Igandea, hilak 12: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 17etatik 19etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 13: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 18etatik 19etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 14: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 06etatik 08etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 15: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 07etatik 09etara ordu lokala.

- Hilaren 14tik 17ra bitartean jet korrontea latitude baxuagotan kokatu zen eta depresio batzuk Penintsulara hurbildu ziren. Hegoaldeko haizea nagusitu zen. Horrez gain, hilaren 14an, egunaren lehenengo partean, olatuen altuera adierazgarria 3.5 m-tik gorakoa izan zen. Hilaren 17an, elur-kota 1000 m inguruan egon zen eta elur txikia egin zuen mendi gailurretan.

Estazioa	Hilak 14 (km/h)	Estazioa	Hilak 15 (km/h)	Estazioa	Hilak 16 (km/h)
Arboleda	123	Cerroja	136	La Garbea	115
Matxitxako	121	Matxitxako	130	Orduña	114
Orduña	121	Punta Galea	130	Oiz	110
Cerroja	116	Orduña	126	Cerroja	103
Oiz	110	Arboleda	117	Deusto	80
La Garbea	106	Galindo	105		
Punta Galea	105	Deusto	86		

Asteartea, hilak 14: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 09etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan Bizkaian eta Araban 09etatik 24etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 15: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan Bizkaian eta Araban 00etatik 09etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan Bizkaian eta Araban 00etatik 09etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 16: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 06etatik 21etara ordu lokala

Ostirala, hilak 17: Abisu Horia elurragatik barnealdean 12etatik 24etara ordu lokala..

- Hilaren 18an blokeo antiziklonikoa hautsi egin zen. Aska atlantiko txiki bat apur bat sakondu egin zen, bere atzetik gailur atlantiko indartsu bat bizkor mugitzen zihoan heinean. Fronte hotz bat pasa zen EAetik eta giro euritsua gailendu zen; elur-kota 700-900 m-ra egon zen, baina elurra urria izan zen.



Egun hartan eta hurrengoetan goizaldetan barnealdean izotz handia bota zuen, aire hotzeko adbekzioagatik. Gipuzkoa ekialdeko kostaldean ere izotz txikia egin zuen. Hilaren 21ean Mediterraneoan izandako denboralaren hondarrak gurera iritsi ziren eta Araba hegoaldean kota ertainetan elurra egin zuen.

Estazioa	Hilak 18 (°C)	Estazioa	Hilak 19 (°C)	Estazioa	Hilak 20 (°C)	Estazioa	Hilak 21 (°C)
Iturrieta	-1.7	Kapildui	-3.5	Kapildui	-5.6	Kapildui	-4.2
Kanpezu	-1.5	Herrera	-3	Herrera	-4.8	Herrera	-4.2
Salvatierra	-1.5	Iturrieta	-2.6	Iturrieta	-4.2	Salvatierra	-2.7
Ozaeta	-1.4	Roitegi	-2.6	Roitegi	-4.1	Albaina	-2.5
Antoñana	-1.3	Oiz	-2	Berastegi	-1.6	Berastegi	-1
Pagoeta	-1.3	Zaldiaran	-1.4	Pagoeta	-1.6	Muxika	-1
Egino	-1.1	Eskas	-1.1	Untzueta	-1.4	Lasarte	-0.9

Larunbata, hilak 18: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokala.

Igandea, hilak 19: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 18etatik 24etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 20: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala. Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 18etatik 24etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 21: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala. Abisu Horia elurragatik Araban 06etatik 12etara ordu lokala

- Hilaren 24an eta 25ean giro egonkorra nagusitu zen, gauean irradiazioa handia izan zen eta barnealdean izotza bota zuen.

Estazioa	Hilak 24	Estazioa	Hilak 25	Estazioa	Hilak 26
Pagoeta	-0.8	Pagoeta	0.2	Tobillas	-1.2
				Altube	-0.8
				Sarria	-0.5
				Orduña	-0.3
				Balmaseda	-0.1
				Gorbea	0
				Abetxuko	0.1

Ostirala, hilak 24: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 25: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokala.

Igandea, hilak 26: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokala.

- Hilaren 27an zirkulazio zonala berrezarri zen eta Islandia hegoaldean zegoen depresio-sistema batek hegoaldeko haizea mugiarazi zuen gurean.



Goizean mendebaldeko mendi inguruetan haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten (116 km Orduñan, 111 km/h Cerrojan eta 104 km/h Punta Galean).

Astelehena, hilak 27: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan Bizkaian 10etatik 21etara ordu lokala.

- Hilaren 28an eta 29an olatuen altuera adierazgarria igo egin zen, batez ere hondoko itsasoagatik. Hilaren 28an olatuen altuera adierazgarria 3.5 m ingurukoa izan zen (Pasaiako Portua: 3.3 m, Donostiako Buia: 5.4 m). Itsasgoren inguruan estimatutako gainezka egiteko indizeak hauek izan ziren: goizaldeko itsasgoran, $I=5.8$ m eta $I_{max}=6.2$ m, arratsaldekoan $I=5.8$ m eta $I_{max}=6.3$ m. Hilaren 29an ere olatuen altuera adierazgarria 3.5 m ingurukoa izan zen (Pasaiako Portua: 3.3 m, Donostiako Buia: 5.1 m) eta lehenengo itsasgoraren inguruan estimatutako gainezka egiteko indizeak $I=5.9$ m eta $I_{max}=6.4$ m

Asteartea, hilak 28: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 06etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 06etatik 08etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 18etatik 20etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 29: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 18etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 06etatik 08etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.